

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. RAXOYREN GOBERNUAK UZTAILERARTE ONARTUTAKO MURRIZKETEN LABURPENA
2. ABUZTUAN, MURRIZKETA GEHIAGO
3. MURRIZKETEN ONDORIOAK
4. LANGABEZIA ETENGABE ARI DA IGotZEN
5. HEGO EUSKAL HERRIKO OGASUNEN DIRU BILKETA MURRIZTUZ DOA
6. FINANTZA SEKTOREAREN INGURUAN ZENBAIT GAKO
7. MURRIZKETA BERRIAK GREZIARENTZAT
8. PROPOSAMENA: ANDALUZIAKO LANGILEEN SINDIKATUAREN ADIBIDEA. EKINTZA ZUZEN EZ BORTITZA

1. RAXOYREN GOBERNUAK UZTAILERARTE ONARTUTAKO MURRIZKETEN LABURPENA

2011ko abenduan Partido Popularra Espainiako gobernuaren agintera iritsi zenetik hainbat izan dira Raxoyk egindako murrizketak. Krisi ekonomikoa aitzakitza hartuta hauetako neurri bakoitzak lortu duen bakarra gizartea gehiago txirotzea izan da. Kronologikoki aztertuta gobernu popularrak 8 hilabetetan honako neurriak onartu ditu:

2012ko otsaila: Negoziazio kolektiboaren eta Lan.Erreforma

Erreforma honi esker gaur egun kaleratzea askoz ere merkeagoa da. Bidegabeko irazpenen kalteordainak lan egindako urte bakoitzeko 45 egunetik, 42 hilabetetako mugarekin, 33 egunera pasatzen dira 24 hilabeteko mugarekin. Kaleratzea praktikoki librea da. Horez gain enpresariak gaitasuna dauka ordutegia, lantokia edota soldata aldatzeko, ahalik eta irabazi gehien lortzeko. EREak aurkezteko prozesua ere errazten da, kaleratze kolektiboak erabakitze beharrezkoa zen lan baimen administratiboa ezabatu baitute. Erreforma honen ondorio zuzena da lan baldintzen prekarizazioa.

Negoziazio kolektiboari dagokionez, erreformaren bidez langilegoaren negoziatzeko ahalmena ahultzen da. Ultraaktibitatea urtebetera mugatzen da. Enpresako hitzarmenari erabateko lehentasuna ematen zaio, zenbait gaietan hitzarmen sektoriala murriztu daitekeelarik.

2012ko apirila: osasun eta hezkuntzanmurrizketak.

Bi sail hauetako murrizketek 10.000 milioi euroko murrizketa suposatzen dute, 7.000 milioi euro osasunean eta gainontzeko 3.000 milioi euroak hezkuntzan. Osasunean hainbat gizarteko hainbat talderen Gizarte Segurantzarekiko eskubidea murrizten da. Gainera, orain arte Gizarte

Segurantzak bere gain hartzen zituen sendagaien ordainketa ezartzen dute.

Hezkuntzari dagokionez, unibertsitateko tasen gorakada bat iragarri dute eta beka bat eskuratzeko baldintzak gogortu dituzte. Lehen eta Bigarren hezkuntzako irakasleen lanordua gehitzen dira eta gauza bera gertatzen da ikasgelako ikasle kopuruarekin. Neurri hauen ondorioz irakasleen kaleratzeak egongo dira eta hezkuntzaren kalitate maila ere murriztuko da.

Apirilean, berriz ere, tarifa elektrikoaren gorakada iragartzen dute (azken hamar urteetan %86ko igoera izan dute) eta era berean energia berriztagarriei laguntzak ezabatu dituzte.

2012ko uztaila: Administrazio Publikoan, Gizarte Segurantzaren eta Enpleguan, Menpekotasun Sisteman, Fiskaltasunean eta Etxebizitza, Garraio eta Azpiegituretan Murrizketak.

Izatez gobernuak joan den maiatzaren 30eko Europar Kontseiluan erabakitako Gomendioak bere egin ditu. Gobernuak behin eta berriz kontrakoa esanagatik ere, neurriok hartzea euroaldeak erabakitako baldintza bat da, Espainiak 100.000 milioi euroko mailegua jaso dezan (interesekin itzuli beharrekoa).

Neurrien mamia funtzio publikoaren goitik beherako aldaketa da (administrazioen egiturari eragingo dieten neurriekin), aurrekontuetan gizarte-prestazioetan ondorioak izango dituzten erabakiak (langabezia, pentsioak, etab.), diru-sarrereri buruzko beste erabaki batzuk, zeharkako zergak gehitze aldera (BEZ eta zeharkako beste zergak), eta erreforma estrukturalen egutegia azkartzea.

Adostutako neurriak administrazioko zerbitzuetako langileekiko eraso zuzena da. Abenduko bigarren aparteko paga kenduko dute eta horrez gain opor egunak eta atsedeen egunak

ere murriztuko dituzte. Aintzinasunak ez du atsedean egun gehiago izateko eskubidea emango eta aldi baterako ezintasun egoerako baldintzak gainerako langileek dituztenekin berdinduko dituzte.

Langabezia prestazioetan, prestazioa jasotzen hasten direnei seigarren hiletik aurrera kotizazio-oinarriaren %60aren ordez %50a ordainduko zaie. Edozein lan eskaintza edo kurtsu ukatzeak prestazioa kentzea eragingo du.

Epaia finkoa duten bidegabeko irazpenen kasuan tramitazio soldaten ordainketa Estatuari erreklamatzeko bidea aldatu dute. Estatuak ordainduko ditu, beti ere, epaia auzi-eskea aurkeztu zenetik 90 egun igarota ematen denean (lehen 60 egun ziren) eta epe hori gaintitzen duen denboran.

Enpleguari dagokionez, egun kontratazeko ematen diren hobari gehienak kenduko dira. Gizarte-kotizazioak 2013an puntu bat jaitsiko dira, eta beste puntu bat gehiago 2014an.

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen diru laguntzak murriztuko zaizkie.

BEZaren tasa orokorra hiru puntu gehituko da, egungo %18tik %21era. Tasa murriztua %8tik %10era igoko da, eta produkturik beharrezkoenen gaineko tasa supermurriztua bere horretan utziko dute, %4an.

Saltokietan irekitze ordutegiaren liberalizazio handiagoa emango da eta horrez gain beherapenen liberalizazioa.

Ohiko etxebizitzaren alokairuari dagozkien hileko gastuen ordaintzea errazteko laguntza, Emantzipaziorako Oinarriko Errenta, 147 eurokoa izango da.

Oraindik pribatizatzeke dauden hainbat enpresa publikoren pribatizazio prozesu berri bat jarriko da martxan.

2. ABUZTUAN, MURRIZKETA GEHIAGO

Gobernuak abuztua aprobeixatu du murrizketa gehiago egin edo agertzeko. Dokumentu honetan hauetako bi aipatuko ditugu:

a) "Prepara Plana" (400 euroak) jasotzeko baldintzak gogortu

"Prepara Plana" 2011ko otsailean jarri zen martxan, eta 6 hilabeteko berrituz doa. Plan honetara jo dezakete kotizaziopeko langabezia saria bukatu eta beste inongo langabezia subsidiarik jasotzeko eskubiderik ez dutenek, beti ere gogortu diren zenbait baldintza beteta:

- Azken 18 hilabeteetatik 12 lan-eskatzaila gisa izena emanda egotea (orain arte ez zegoen gutxieneko eperik)
- Familiak ez ditzala izan pertsonako gutxieneko soldataren %75eko irabaziak baino handiagoak (hemendik aurrera goranzko familiaren diru sarrerak ere kontutan izango dira, beraien gurasoekin bizi direnen kaltetan)
- Azken 30 egunetan lana bilatzeko zenbait saiakera egin direla frogatzea beharrezkoa izango da (3 kurrikulum bidali edo lan elkarrizketaren bat izan)

Beren kargu 3 edo kide gehiago dituztenentzat prestazioa gutxieneko soldataren %75etik %85era pasa da. Ez da honen datu zehatzik eman, baina badirudi atal honetako diru partida murriztu egingo dutela, murrizketak aipaturiko gehikuntza baino askoz handiagoak baitira.

b) Pentsioen murrizketaren iragarpena

Pasa den abuztuaren 3ko Ministro Kontseiluan gobernuak 2013-2014ko Aurrekontu Plana onartu zuen, eta bertan pentsioen inguruan zenbait neurri iragartzen dira. Honek Raxoik behin eta berriz pentsioak bere "marra gorrietako" bat direla esaten duenean ez dela egia ziurtatzen du. Planak adierazten duenez, neurri berriak ezarriko



dira Estatuko Aurrekontu Orokorrean (irailaren 28an aurkeztuko da 2013ko aurrekontuen proiektua) eta Toledoko Paktuan, ondoren lege gisa tramitatua izateko (Paktu hori lehen bai lehen deitzeko asmoa dute). Hauek dira neurri aipagarrienak:

- Erretiro adina aldatzea, pentsioaren hasierako zenbatekoa edo errealizazio baldintzak aldatzea, besteen artean.
- Erretiro partziala hartzeko baldintzak aldatu (gutxieneko adinaren aldaketa, lanaldiaren portzentaiaren aldaketa, edo erretiro adina aurreratzeagatik ezartzen diren koefiziente murriztaileen aldaketa, beste batzuen artean).
- Sistemaren beste zenbait aldaketa.

3. MURRIZKETEN ONDORIOAK

Espainiar estatuan ezartzen ari diren murrizte-politikak herritarrei pobretze orokorra dakarkie, eta politika hori datozen egun eta asteetan areagotuko egingo da. Politika honekin atzeraldia areagotzen ari dira, langabezia gehitzen, gizarte-babesa murrizten eta gero eta jende gehiagok hil amaierara iristeko zailtasunak izatea eragiten dute. BEZa gehitzea eta murrizketak egitea (prestazio sozialetan nahiz arlo publikoko soldatetan) politika bidegabeak dira; krisia beraren ardurarik ez dutenei ordainarazten diete.

Politika honen oinarria manipulazioa eta gezurra da. Herritarrei erabaki antisozial hauek ezartzeko moduarekin demokrazia hondatzen da, benetako informaziorik eta eztabaida sozialik ez baitago; bitartean, bankuetara dirutza publikoa bideratzen da. ELArentzat ezin da onartu bankuei 100.000 milioi euro ematea eta garai berean langabezia-prestazioak, pentsioak eta soldatak moztea. Ez da onargarria ere enpresei gizarte-kotizazioak jaitea eta herritarrei BEZa igotzea. Begibistakoa da errenta kopuru izugarria biztanleriaren gehiengoari kendu eta gutxiengo baten poltsikora bideratzen ari dela. Harrapaketa honek, gainera, botere politiko, ekonomiko eta finantzarioaren

babesa du.

Nazio Batuetako Erakundeak ekainak 6an, onartutako azken murrizketa neurrien aurretik (BEZaren igoera, prestazioen murrizketa...), txosten bat egin zuen, non gobernu espainiarrak onartutako neurriak salatzen dituen.

Erakundea erabat kezkatuta dago, murrizketen ondorioak zeintzuk diren aztertzean. Langabezi tasa oso altua da, langilegoaren eskubideen atzerakada bat ematen ari da eta orokorrean gizartearen babes mailak larriki behera egin duela uste du Nazio Batuetako Erakundeak. Honen arabera, murrizketek eta krisiaren areagotzeak txirotasun egoeran egoteko indizeak gora egin du, datu larri bat argitaratuz: populazioaren %21,8a txirotasun atalasetik behera bizi da.

Haatik, alternatiba badago, eta hau krisiarentzako irtenbide justua litzateke: murrizketarik ez aplikatzea eta zerga- zein gizarte-politikak errotik aldatzea. Politika horrek logika neoliberal eta kapitalistari aurre egitea eskatzen du, baita botere ekonomiko eta finantzarioari ere.

Politikak aldatzeko bide bakarra daukagu: salaketa eta mobilizazioa. Horrgaitik, Irailaren 26an, DENOK GREBARA!

4. LANGABEZIA ETENGABE ARI DA IGOTZEN

Abuztuan erregistraturiko langabe kopurua **208.477 pertsona**takoa izan da Hego Euskal Herrian, uztailan baino 1.879 gehiago, 2011ko abuztuan baino 26.341 gehiago, eta 2008ko abuztuan krisia hasi zenean baino 102.109 gehiago. Hau da, langabe kopurua bikoiztu egin da 4 urte hauetan.

Pairatzen ari garen **langabezi tasek** antzeko ondorioak erakusten dituzte, 2008ko abuztuko %7,8ko langabezi tasatik, bikoitzera igaro baikara 2012ko abuztuan, zehazki %15,6era.

Langabeziaren bai egoera eta bai bilakaera oso bestelakoak dira **Europako Batasunean**, non langabezi tasa %10,4ekoa den, Hego Euskal Herrikoa baino 5,2 puntu baxuagoa. Egoera hau bereziki kezkarria da krisialdiaren hasieran Batasuneko antzeko langabezia geneukala kontutan hartzen badugu (%7,8 Hego Euskal Herrian eta %7 Europako Batasunean).

Langabezi tasa eta bere bilakaera kezkarriak badira Hego Euskal Herrian, langabezian dauden pertsonen egoera ez da gutxiagorako. Zehazki, langabeen %41,2ak ez du inolako **langabezi saririk** jasotzen, eta portzentaje hau etengabe hazten doa: azken urtean puntu 1 igo da, eta 6,8 puntu 4 urte hauetan. Gainera, langabeek jasotzen duten zenbatekoa ere murriztu da, gero eta baxuagoa baita kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenen portzentajea eta altuagoa kotizaziopekoa ez den prestazioa kobratzen dutenena (azken hau zenbateko baxuagokoa da aurrekoa baino). Zehazki, langabezian zeudenen %37,3ak soilik jasotzen zuen kotizaziopeko prestazioa, orain dela 4 urte %45,7ekoa zen portzentajea.

Langabeziarekin batera argitaratzen diren **kontratazioari buruzko datuak ere oso kezkarriak dira, abuzturarte Hegoaldean sinaturiko kontratuen %93,9 behin-behinekoak** izan baitira; portzentaje hau ere **etengabe dora gora (3 hamarren igo da urte betean eta 3,2 puntu azken 4 urte hauetan).**

LANGABEZI ETA PRESTAZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

	2008ko ABUZTU	011ko ABUZTU	012ko ABUZTU
ERREGISTRATURIKO LANGABE KOPURUA	106368	182136	208477
LANGABEZI TASA	7,8%	%13,40	15,6%
EBko LANGABEZI TASA (UZTAILA)	%7,00	%9,60	%10,40
PRESTAZIO GABEKO LANGABE %a	34,4%	40,2%	41,2%
KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOA (LANGABEEN %a)	45,7%	37,5%	37,3%

Iturriak: SEPE, INE, EUROSTAT

Langabeziarekin lotura zuzena duen beste datu bat konkursaturiko enpresa kopurua da, hau ere igo egin delarik. 2012ko lehen 2 hiruilekoetan 327 izan dira Hego Euskal Herrian konkursatu

diren enpresak (53 Nafarroan eta 274 EAEn), 2011ko lehenengo sei hilabeteetan baino 77 gehiago (8 Nafarroan eta 69 EAEn).

KONKURSATURIKO ENPRESA KOPURUA.

HEGO EUSKAL HERRIA, 2011-2012 2. HIRUHILEKOA

	2011 I-II	2012 I-II
Nafarroa	45	53
EAE	205	274
HEH	250	327

Iturria: INE

5. HEGO EUSKAL HERRIKO OGASUNEN DIRU BILKETA MURRIZTUZ DOA

EAEko Foru Aldundiek 5.042,7 milioi euro **bildu** dituzte uztaile arte, 2011ko lehen 6 hilabeteetan baino %2,4 **gutxiago**. Ondare Zerga berrezarri dutelako izango ez balitz (105,5 milioi eurotako bilketa ekarri duena), bilketaren jaitziera %4,4koa izango zen.

Bilketa zeharkako zergetan jaitsi da batez ere, %7,2 murriztu direnak (zerga zuzenak %3,7 igo dira, nahiz eta Ondare Zergatik izan ez balitz %1a jaitziko liratekeen). Jaitziera hau kontsumoaren beherakadak eta zerga iruzurraren igoerak eragin dute hein handi baten, BEZ bilketa %14,6an jaisteaz gain, alkohol edo hidrokarburo bezalako zerga berezien bilketa mermatu dutelarik.

Nafarroako Foru Ogasunak 1.740,3 milioi euro bildu ditu abuzturarte, 2011ko epealdi berdinean baino %6,15 gutxiago. Ondare gaineko Zerga berrezartzeak (19,4 milioi eurotako bilketa ekarri duena) bilketaren jaitziera baxuagoa izatea eragin du Nafarroan ere.

Zerga zuzenen bilketa bere horretan mantendu da gutxi gora behera Nafarroan (%0,11 igo da), zeharkakoena %10,63 murriztu delarik. Kasu honetan ere, BEZaren %14,85eko jaitzierak eta

hidrokarburo edo garraioa bezalako zerga berezien murrizketak eragin du zeharkako diru bilketaren jaitsiera.

ZERGA BILKETA.

EAE 2012 URTARRILA-UZTAILA,
NAFARROA 2012 URTARRILA-ABUZTUA

	EAE		NAFARROA	
	Miloi €	% Ald.	Miloi €	% Ald.
ZERGA ZUZENAK	2328,92	%3,70	812,94	%0,11
ZEHARKAKO ZERGAK	2655,16	-%7,20	908,81	-%10,63
BESTE	58,66	%1,40	18,51	-%26,74
GUZTIRA	5042,74	-%2,40	1740,26	-%6,15

Iturriak: Eusko Jaurlaritzza, Gobierno de Navarra

BPGd-a jaitsi egin da termino errealetan 2012ko lehen 2 hiruhilekoetan EAEn eta mantendu Nafarroan, baina igo egin da termino nominaletan (eurotan). Administrazioek aplikaturiko doikuntza eta **murrizketa neurriek** ere, zerikusi nabarmena dute bilakaera honetan zalantzarik gabe: enplegu publiko gutxiago, kaleratzen errezagoak sektore pribatuan, edo langabezi prestazio gutxiago bezalako erabakiek, PFEZ edo BEZ-agatiko bilketa urriagoak ekarri behar dituzte halabeharrez.

Bestalde, eta erakundeek (Hego Euskal Herrikoak barne) **defizitaren helburua** bete behar dutela ontzat ematen duten heinean, zerga bilketaren jaitsierak **gastu publikoaren jaitsiera** dakar, eta honek, langabezi eta pobrezia gehiago, BPGd gutxiago... Azken baten, erabateko eredu aldaketa batekin soilik apurtu daitekeen espirala. Diru bilketa eta gizarte gastu altuagoak izan behar dira halabeharrez irtenbidea, hau da, sektore publiko gehiago beharrezkoa **da egoera honetatik ateratzeko.**

6. FINANTZA SEKTOREAREN INGURUAN ZENBAIT GAKO

Azken asteetan finantza sektorearen inguruko berriak pilatuz joan dira. Hauen gaineko gakorik aipagarrienak emango ditugu:

a) Bostgarren finantza aldaketa onartzea

Abuztuaren 31, Raxoiren gobernuak eurotaldearekin adostutako epeko azken egunean, espainiar gobernuak finantza sistema aldatzeko errege-dekretu bat onartu zuen. Gobernuari (FROB delakoaren bitartez) eta Espainiako Bankuari esku-hartze eta kontrol handiagoa ematen dieten neurriekin batera, beste zenbait neurri kritikagarri onartu dira:

- "Banku txarra" delakoa sortzea. Banku txarra sozietate anonimo bat izango da, hein haundi batean diru publikoz osatua, eta finantza erakundeen eskuetan dauden produktu eta aktiboak erosi eta saldu ahalko dituen, hala nola zorra jaulki. Gobernuak (FROBaren bitartez) finantza erakundeak behartuko ditu banku txarrarekin "bereziki kaltetutako zenbait aktibo" eskualdatzea, eta ondoren Espainiako Bankuak zehaztuko du finantza erakunde bakoitzean sartuko diren aktiboak eta hauen prezioa. Gobernuak dagoeneko iragarri du banku txarrak higiezin aktiboak erosiko dituela (etxebizitzak eta lurrak) merkatuko prezioen gaintik. Prezioen gainbalorazio honek Ekonomia Ministroak, Luis de Guindosek, lehentasunezko partizipazioengatik (entitate batek jaulkitako balorea eperik eta bermaturiko errentabilitaterik gabea) esan zuenarekin talka egiten du, alegia "merkatu prezioan" baloratuko zirela.
- Bankuei emandako abaletan beste 41.000 milioi gehiago. FROBak banketxeak beste 41.000 milioi gehiagorekin abalatu ahal izango ditu.

Erreforma honek banketxeen galerak murriztuko ditu, eta banku txarrari izugarritzko galerak eragin, diru publikoarekin ordainduak. Eragiketa honek ikaragarritzko dirutza publikoa finantza entitateei ematea suposatuko du. Lotsagarria da honen aurrean gobernuak "gizarteari ez zaiola euro bakar bat ere kostako" esaten segitzea.

b) Europako Banku Zentralaren irailaren 6ko erabakiak

Irailaren 6an Europako Banku Zentralak (EBZ) elite politikoengandik eta komunikabideengandik arrera oso ona izan duten zenbait erabaki hartu zituen. Baina, zer da EBZk erabaki zuena? Beraien kontuak esku-hartuta izatea aurretik eskatu zuten gobernuen zor publikoa Europako Bankuaren, Europar Batasunaren eta Nazioarteko Diru Funttsaren bitartez erostea erabaki zuen. Erosketa hau beti "baldintza zorrotzen" menpe egongo da. EBZ beharrezkoa den diru guztia bideratuko du horretarako, mugarik gabe, zor merkatuan erosi eta arrisku saria murrizteko.

ELAk EBZren erabakia gaitzesten du, bereziki bi arrazoiengatik:

- Finantza erakundeek mesedetan egiten da batik bat, zor publikoa erosi dutenak baitira. EBZk ez die zor publikoa gobernuei erosiko, finantza erakundeek erositako zor-tituloei baliorik galtzen ez dutela bermatuko du. Hau da, EBZk ez du euro bakar bat utziko gobernuen eskuetan (ezta mailegu moduan ere). Nolabait esanda, erabaki honek EBZa "zor publikoaren banku txarra" bezalako zerbait izatera bideratzen du, finantza erakundeek galerak gizarteratuz.
- Gobernuei baldintza gehiago ezarriko zaizkie. Baldintza hauek oso gogortzat jo ditu EBZeko buruak.

Europatik hartzen diren neurriak (nahiz europako funtsena nola EBZk ostegunean onartutakoa) kapitalari, finantza erakundeek edo hartzekodunen funtsei errentagarritasuna bermatzeko dira. Honetarako nahi adina diru dago. Modu honetan gobernuek zorrarengatik ordaintzen dituzten interes tipoak txikiagotuko direla esaten dute. Baina hori ez dago guztiz garbi 2012an espainiar estatuan gertatzen ari dena ikusita, eta inolaz ere ez du justifikatzen EBZak zor publikoa zuzenean gobernuei ez erostea tipo baxu batean (bankari

bilioi bat euro %1ean maileguan eman eta gero). EBZak gobernuei zor publikoa zuzenean %1ean erosiko balie, hauek ordaintzen dituzten interesak izugarri jaitsiko liriateke.


c) Espainiar estatuko bankuak EBZrekin duten zorra handitzen ari dira

Espainiar estatuko banketxeek EBZarekin 375.549 milioi eurotako zorra zuten uztailean, ia BPGd-aren %40. Zor hau erabat handituz doa. Zazpi bider handitu da azken urtean, 52.503 milioietakoa zenetik. Datu hauek finantza buruen eta botere ekonomikoa dutenen zurikeria agerian uzten du, hauek zor publikoak suposatzen duen arazoaz besterik ez baitira mintzatzen. Bankak hau esatea lotsagarria da, eta hau esaten dutenean kasu egitea, onartezina.

Aipagarria den beste datu bat espainiar estatuko bankak, Europar Batasuneko %12ak, EBZaren zor guztiaren %50,4a izatea da. Datu guztien arabera egoera azaltzen dutena baino askoz ere okerragoa da.

PRÉSTAMOS DEL BCE A LA BANCA ESPAÑOLA

En millones de euros



d) Espainiar estatutik legalki ihes egiten duen kapital kopurua ikaragarria da

Espainiar Bankuaren arabera, 2012ko urtarriletik ekainera 219.827 milioi eurotako kapitalak ihes egin du (kontrol ofizialik gabe alde egindakoa kontutan izan gabe), BPGd-aren %22ak.

Kopuru honek 2011an gertatutakoarekin talka egiten du, izan ere orduan 22.000 milioi euroko saldo positiboa izan baitzen. Pasa den urteko uztailetik hilabeteroko datuak negatiboak dira, eta okertzerako bilakaera erakusten dute gainera.

7. MURRIZKETA GEHOAGO GREZIARENTZAT

Troikak (Europar Batasuna, Europako Banku Zentrala eta Nazioarteko Diru Funtza) greziar gobernuari lan harremanak malgutzeko eskatu omen dio hainbat neurriren bidez.

31.000 milioi euroko erreskateko tarte berria jasotzeko Europar Batasunak eta Nazioarteko Diru Funtzak 2013 eta 2014 urteetarako 11.600 milioi euroko doikuntza neurri berriak eskatu dizkio baldintza gisa Greziako gobernuari.

Proposamen eztabaidagarrienen artean dago lan astea bost egunetik sei egunera luzatzea eta laneko txanda arteko atsedeen tarte hamaika ordura murriztea. Era berean, Troikak kaleratzeagatiko kalteordaina eta enpresariet langileen kaleratzea jakinarazteko duten epea erdira murriztea eskatzen dio. Enpresek Gizarte Segurantzara langileko egiten dituen ekarpenak ere murriztu nahi ditu, nahiz eta zerga bilketa txikiagotzen doan.

Bestalde, funtzionarioek eta pentsiodunek eros ahalmenaren %40a galdu dute 2009an murrizketa plangintzekin hasi zirenetik. Sektore pribatuan ere zifrak berdintsuak dira negoziazio kolektiboak izandako liberalizazioak soldatetan izandako eraginagatik. Nahiz eta oraindik informazioa ez den argitaratu, badirudi neurriok polizia, militar,

suhiltzaile eta kostazainen soldatak %6 eta %12 bitartean murrizteko aukera batzen dutela, sendagileenek %13ko murrizketa jasango dute eta unibertsitateko irakaslegoaren soldatak ere %17,5a baxuagoak izango dira. Gainera, epaile era fiskalen diru sarrerak ere %20 eta %35 bitartean jaitsiko dira. Ematen duenez 40.000 funtzionario erreserba postuetara pasatuko dira hiru urtetarako. Ez da ahaztu behar Gobernuak 2015. urterako 150.000 funtzionario kentzera konprometitu zela.

Gobernuak enpresen pribatizazioaren alde egin du apustu, dirudienez dirua lortzeko. Hainbat enpresa publiko eskeintzen ditu, bereziki energiadunak, azpiegiturak eta eraikinak eta Mediterraneoko hainbat toki estrategikoetan dauden hainbat jabetza.

Neurri hauen jakinarazpenak berriro ere mobilizazioak eragin ditu, oporraldiaren eta hauteskunde sasoiaren geldidunaren ondoren. Manifestazio berriak deitu dituzte gizarte erakunde, sindikal eta politikoei, greba orokor berri bat gertu ikusten dutelarik.

8. PROPOSAMENA: ANDALUZIako LANGILEEN SINDIKATUAREN ADIBIDEA. EKINTZA ZUZEN EZ BORTITZA

Abuztu hasieran Andaluziako Langileen Sindikatuak, nekazarien sindikatua, aldarrikapen ibilaldi bati ekin zion. Sindikatuaren aldarrikapenen artean daude bankuen zorra funts publikoekin ez ordaintzea, murrizketen atzera botatzea, desjabetzen eta kaleratzeen debekatzea edo bankaren eta sektore estrategikoen nazionalizazioaren bitartez aberastasun banaketa handiago bat. Sindikatuak 35 orduko astea eta 60 urtekin erretiratzea ere aldarrikatzen du, lanbidearteko gutxieneko soldata 1.000 eurora igotzea, osasun eta hezkuntza publiko eta kalitatezkoa eskaintzea, etxebizitza eskubide gisa onartzea eta lur publikoak langileen kooperatibei uztea.

Ibilaldiak, Andaluziako probintzia desberdinetako hainbat herritatik hasita, 100 herri erakunde baino gehiagoko ordezkariak osatu dituzte. Ibilaldi hauetan hainbat ekintza egin dituzte, hala nola, saltoki, banku edota Moratallako jauregiaren okupazioa.

Ibilaldiak Sevillan bukatu ziren, jendetza izugarria batu zelarik bertan. Ibilaldi hauetan 49 pertsona atxilotu dituzte orotara. Justizia eta Barne Ministroek beraien irakaskuntza frankistak ezarri dituzte eta indar poliziala erabili dute ekintza ez bortitzak leporatzeko. Sindikatuak azpimarratu duenez azken hamarkadetan lortutako eskubideengatik borrokan jarraituko dute eta bankuak, lurak eta jauregiak okupatzen ere bai.

Ohar baten bidez, ELAk bere elkartasuna erakutsi nahi izan dio Andaluziako Langileen Sindikatuari kapitalismoaren aurka eta langile klasearen eskubideen alde daraman borrokarengatik.

AZTERKETA BULEGOA